



## 80. hamarkada, drogak eta Hiesa

Nik ez nuen 80. hamarkada bizi izan, baina bai 90. hamarkada. RIP, Eskorbuto, Cicatriz eta Parabellum taldeen azken kontzertuak ezagutu nituen, azken barrikaden kea usaindu nuen, eta okupatutako gaztetxeetan bizirik irauten zuen gazte mugimendu inkonformista eta asanblearioa ezagutu nuen. Garai hartan irrati libreek egun osoko programazioa zuten, eta mikrofonoak, sistemaren aurka alternatibak eskaintzen zituztenentzat irekita egoten ziren. Beti, edo... ia beti.

Krisi ekonomiko baten osteko oinordekoak ginen. Aita jo eta ke lanean aritzen zen, garai txarrak zetozeneko dirua aurreztu asmoz. Ama ere egun osoz lanean aritzen zen, etxea garbitu, erropak lixatu, alabak eskolara eraman, eskolatik jaso, arropak josi, bazkaria gertatu, eta senarra itzultzen zenerako dena txukun eta ordenean mantentzen zuen.

Gazteak lanerako aukerarik gabe, krisi ekonomiko baten erdian, eta protestarako gogo handiz harrapatu zituen belaunaldiaren ondorengoak izan ginen gu. Hamar urte geroago, gu gaztetxoak ginen, eta gazteak ziren, egoera hartatik bizirik ateratzen zirenak. Eta haietako askorekin orduak konpartitutakoa naiz ni, asanbladetan, eztabaidetan, manifestetan, eta bestelako ekimenetan.

80. hamarkadan milaka gazte erori zen, speed gauetan lehenik, eta heroinaren atzarretan gero. Heroina eta porroak eta drogak orokorrean txarrak zirela –eta, haiengandik ihes egin behar genuela entzun genuen gure belaunaldikook etxean, egun baten bai eta bestean ere bai. Heroina eta bestelakoak baina, hasiera besterik ez ziren izan. Norbaitek, gure artean gelditzeko gonbitea luzatu zion Heriori, eta egoera are gehiago nahasteko, Hiesaren mozorroa jantzi zion. Mozorro ezin hobea . 25 urte hauetan, inor inoiz zenbatzera ausartu ez den gazte kopurua eraman du herioak, mozorro hori jantzita. Edurne nire lehengusua, Juanillo, Txutxu...eta ezagutzera iritsi nintzen beste hainbat gazterena, eta ezagutzera iritsi ez nintzen beste askorena. Aurrekoan, lagun batekin gai honen inguruan hizketan ari nintzela, 1997an, Hiesak hildako Elgoibartar kopurua 60 pertsonara iritsi zenean, zenbaketa galdu zuela kontatu zidan.

Sistemaren aurka borrokatzeko prest zegoen belaunaldi oso bat eraman zuen Hiesak, zaparradaka hasieran, sirimiri fina bailitzan gero. Herioari mozorroa nork jantzi zion jakin nahi nuke nik, arrazoiak zeintzuk izan ziren argi baitaukat.